

Profesionalentzako Prestakuntzako webgune berria bildu dira arlo horretako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikastaro guztiak

2014/11/03

Gaur, hilak 3, aurkeztu du Mondragon Unibertsitateak Profesionalentzako Prestakuntzako webgune berria (www.mondragon.edu/profesionalak). Webgune berri horretan bildu ditu Mondragon Unibertsitateak profesionalentzako zuzenduta dituen ikastaroak: unibertsitate masterrak, *online* graduak, aditu tituluak, gradura egokitzapenak, ikastaro aurreratuak, ikastaro laburrak...

Beste fakultateak bezala, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ere, bertan jarri ditu profesionalentzako prestakuntza arlorako duen eskaintza. Hala, webgune berri horretako hurrengo lau ataletan jaso ditu HUHEZIK profesionalentzat zuzenduta dituen ikastaroak: Hezkuntza, Komunikazioa, Kultura eta gizartea eta Kooperatibagintza eta gizarte ekonomia.

Webgunea diseinatzerakoan, berebiziko garrantzia eman zaio bilaketak erraz egin ahal izateari: aukeran dauden bost kategoriatan desberdin baliatuta (gaia, mota, modalitatea, hizkuntza eta lekua), azkar eta modu errazean aurki daitezke intereseko ikastaroak.

Hautxek dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bereziki profesionalentzat zuzenduta eskaintzen dituen ikastaroak:

Hezkuntza

- Kirol-hezitzailea aditu titulu. **BERRIA!** Hasiera: 2015eko urtarrilean!
- Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (Berrimet).
- Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (BHM).

KOMUNIKAZIOA

- Komunikazioa erakundeetan aditu titulu (**Aditukom**). Hasiera: 2015eko urtarrilean!

KULTURa eta gizartea

- Euskal Kulturgintzaren Transmisioan aditu titulu (EKT).
- Jatorrizko hizkuntzen eta identitateen berreskurapenerako aditu titulu.

Kooperatibagintza eta Gizarte ekonomia

- Gizarte ekonomia eta enpresa kooperatiboa unibertsitate masterra (MCOOP).
- Kooperatibagintzan aditu titulu.
- Ekonomia solidarioan garapenerako kudeaketa ekonomiko eta sozialean masterra.



Bilatzailerak erabilteta, oso erraz aukitzen dira ikastaroak.